

que nos arredre la trascendencia de los problemas que deberémos abrazar y resolver, si hemos de alcanzar el fin que nos proponemos, esto es, el origen primero de la palabra.

JOSÉ DE GUISASOLA.

(Se continuará.)

ILLBERRI-DONE EDO KANPO SANTUETAKO OBIZDE BATZUEK



Estote parati (Luc. 12 — 40) Zaudete prest.

Eriotz ordurako
Beti prest dagona,
Jainkoaren graziyam
Bizi-dan gizona.

In omnibus operibus tuis memorare novissima tua, et in æternum non peccabis. (Eccl. 7-40). Zere eginkizun guztietan oroitzaitez zedorren azkenkiaz, eta ez dezu egundaño pekaturik egingo.

Zere egintza danetan
Jarri pensatzen:
Zere-zere azkenkiaz
Oroitzen bazera,
Pekatuban beñere
Eroriko etzera.



Et mortuo non prohibeas gratiam. (Eccl. 7 — 37) Ildakoari ere egiozu mesede.

Bizi zeran artian,
Erregu Jaunari;
Egiñ mesede ori
Illi zan lagunari.



Regnavit mors ab Adam. (Rom. 1-5-14). Adan-dik-asita, eriotza beti.

Adan-en jatorriko
Erritar ta arrotzak
Berdiñ bere mendean
Dauzka eriotzak.



Pulvis et umbra sumus. Auts eta itzala gera.

Bada gorputza mundu onetan
Autsa dezu ta itzala,
Izpirituba salba dezazun
Eiñ-bear dezu eiñ-ala.



Reddere unicuique secundum opera sua. (Apoc. 22-12). Ematea bere egiteaz-berdiñ bakoitzari.

Eriotz ondorenak
Ditugu jakiñak;
Nolako obrak diraden
Bakoitzak egiñak,
Emango zaizka sari
Edo miñ berdiñak.



Qua hora non putatis Filius hominis veniet. (Luc. 12-40). Uste ez dezuben orduban eterriko da gizonaren Semea (Jesús).

Eriotzako orduban dator
Gu juzgatzen batez baten
Juez zorrotza Jainko-Semea;
¿Ta ez gera obeto prestatzen?



Estote parati (prest egon zaitezte). (Luc. 12-40).

Presta zaite ta egiñ
Bertatik dan dana,
Eriotz ordurako
Nai zendukeana.

JOSÉ IGNACIO ARANA-KOAK.

